

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroen gehiengoak elikagai beharra dutenak izango dira. Hala ere premia ez duen jendeak hartzeko aukera ere izango dute; elikagai naturalak nahi dituztenak, elikagai horiek aprobetxatzeko prest daudenak. Hau da, bigarren “erabilera” bat emateko prest dagoen jendea.

Bezero horien ezaugarri nagusietako bat, janaria erosteko diru nahikoa ez dutenak izango dira. Hala ere, lehen aipatu bezala diru falta hori ez duten bezeroak ere edukiko ditugu. Eta noski, herritar horiek besteengan pentsatuko dutelakoan gaude, eta ez dituztela elikagai guztiak hartuko besteei hartzeko aukera emanez. Denek errespetuz jokatuko dutela iruditzen zaigu, azkenean beraien onerako egindako ekimen bat da.